

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko azaroaren 25ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-10-29KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-10-29ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. River Newstead Ponce

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 27an, 76/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: River Newstead Ponceri indianoeetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

2.- Lourdes Satrustegi Latiegi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 29an, 77/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lourdes Satrustegui Latiegui Elostako portxearen teilatua eraberritzeko hirigintza baimena ematea.

3. Intzako karreteraren zenbakitzea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 31n, 78/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko Intzako karretera izeneko bide publikoaren zenbakitzea hasiera batean onestea.

4. Lourdes Satrustegui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urriaren 31n, 79/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lourdes Satrustegui Latiegui 1. Poligonoko 194. Lursailean dagoen bordaren teilatua eraberritzeko hirigintza baimena ematea.

5. Aralar Musika Eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 5ean, 80/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Inaxio Arguiñarena eta Ane Etxeberriari indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

6. Aralar Musika Eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 5ean, 81/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Jon Etxeberria Sotili indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

7. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 6an, 82/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

8. Gizarte zerbitzua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 7an, 83/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko udaletxeko 1. Solairuko batzar gela erabiltzeko baimena ematea azaroaren 17an, 17:30etik 19:30 etara guraso elkartearekin batera antolatu duten tailer bat egiteko.

9. Aralar Musika Eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 12an, 84/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nerea Sestoraini indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

10. Aralar Musika Eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 12an, 85/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nora Nazabal Otamendiri indianoetxeako gelak erabiltzeko baimena ematea musika entseguak egiteko.

11. Mikel Ariznabarreta

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 13an, 86/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Baimena ematea Mikel Ariznabarreta Oyarzabali 5 ardi-bururentzako eta 4 oilorentzako etxeko abeltzaintza instalazioa jartzeko Beteluko 1. Poligonoko 52. lursailean.

12. 2. Poligonoko 6. Lursailaren katastro aldaketa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 20an, 87/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 6. Lursailaren katastro aldaketari dagokionez, interesatuei espedientea eskuragarri jartzea, 10 egun baliodunean egoki iritzitako dokumentuak eta justifikazioak aurkeztu eta alegatu ahal izateko.

3. 2026. URTEKO AURREKONTUAREN ETA EXEKUZIO OINARRIEN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak 2026. urterako Beteluko Udalaren aurrekontuen eta hauen exekuzio oinarrien irakurketa egin du.

Udalbatzari ondoko akordioa onartzea proposatu zaio:

1. Hasiera batez onestea 2026. ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.
2. Hasiera batez onestea Beteluko 2026. urteko aurrekontua betearazteko oinarriak
3. Bai aurrekontu orokorra bai hura betearazteko oinarriak jendaurrean jarriko dira hamabost egun baliodunean, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, herritarrek eta interesatuek espedientea aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egin ezean, aurrekontu orokor hori behin betikoz onetsitzat joko da, jendaurreko epea bukatutakoan.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

4. 2026. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 202. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235.ean ezarritakoari jarraituz, Beteluko Udaleko plantilla organikoa hasiera batez onartzeko proposatu zaio

Hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da udal idazkaritzan, hamabortz egun balioduneko epean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko iragarki ohean iragarkia paratu ondotik, herritarrek edo interesatuek espedientea aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla organikoa behin betiko onetsitzat joko da, aipatutako jendaurreko epea iragandakoan.

LANPOSTUEN ZERREDA

Funtzionarioa

Lanpostua: 1 zenbakia. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Buru den udalerrria: Araitx. A maila. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Berariazko baldintza: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egoera administratiboa: hutsik.

Lan-kontratudunak

Lanpostua: 2 zenbakia. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egungo egoera: Beterik.

Langileen izenen zerrenda

Aldi baterako administrazio-kontratudunak. Joanes Aleman Ollo. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Lanaldiaren erdia Araizko Udalean eta beste erdia Betelukoan. A maila. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Antzintasuna 2013ko irailaren 2tik.

Lan kontrataduneko langile finkoa. Mirentxu Eskamendi Iriarte. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Hornikuntza modua: Merezimendu lehiaketa bidez Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Antzintasuna: 2009ko irailaren 3tik.

Euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 15eko 18/86 Foru Legearen 15.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta kontuan hartuz Beteluko egoera linguistikoa, euskaraz jakitea nahitaezko baldintza izanen da 1. eta 2. lanpostuetarako (idazkariaren eta administrari laguntzailea), eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara maila altuena eskatuko da, EGA, C-1, edo ofizialki haren baliokide den titulazioa.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

5. BETELUKO ARAXES ESKOLAK AUTOKONTSUMORAKO 60KWKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT JARTZEKO PROIEKTUA. ESLEIPENA

"Beteluko Araxes eskolak autokontsumorako 60kwko eguzki-instalazio fotovoltaiako bat jartzeko proiektua." egiteko kontratazio-espedientean aurkeztutako proposamenak kalifikatzeko eta baloratzeko eraturako kontratazio-mahaiak aurkeztutako esleipen-proposamena ikusita

Beteluko Udaleko osoko bilkurak hau ERABAKI DU:

1. "Araxes Eskualdeko Ikastetxe Publikoan 60 kw-ko eguzki-instalazio fotovoltaiako autokontsumorako" kontratatze espedientean Kontratazio Mahaiak egindako jarduketak onartzea.

2. Kontratua honako hauei esleitzea:

Enpresa: Alkubo Ingeniería SL IFZ.: B71466601

Helbidea: Avenida Barañain 52, 31008, Iruñea (Nafarroa).

Lizitazio prezioa: 68.429,45 euro (BEZ kanpo)

Esleitutako prezioa: 38.625 euro (BEZ kanpo)

Lizitazioarekiko prezioaren aldaketa: %43,55 behera

Esleipen-datak erabateko eraginkortasuna izango du, esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerak guztiei bidaltzen zaien egunetik 10 egun naturaleko epea igaro ondoren.

"Beteluko Araxes eskolak autokontsumorako 60kwko eguzki-instalazio fotovoltaiako bat jartzeko proiektua." kontratatze pleguaren 20. artikulua arabera, esleipendunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, gehienez ere zazpi egun naturaleko epean, esleipena jakinarazten denetik:

- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko bermea udalaren alde jarri izanaren egiaztatzea.

- Aseguru-poliza eta obra-prozesuaren ondoriozko arriskuak estaltzen dituen aseguruaren primaren ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, lizitazio-aurrekontuaren adinako kalte-ordainaren gutxienezko mugarekin.

- Lanak gauzatzeko egutegia, adierazitako hasiera- eta betetze-epeekin. Kronogramak honako hauek jasotzeko beharko ditu:

- a) Beharrezko baliabideak zehaztea, hala nola langileak, instalazioak, ekipoa eta materialak.

- b) Obrak edo prestaketa-lanak, ekipamenduak edo instalazioak eta obra-zatiak edo -unitateak gauzatzeko epeen estimazioa, egunetan.

3. Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea kontratua eta horren ondoriozko agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

4.- Erabaki hau esleipendunari eta eskaintza aurkeztu duten gainerako lizitatzailerak jakinaraztea.

6.- 2/2025 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 2/2025 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua 1 1522 22706 "Zigarin, Zamarginen eta Urumean etxebizitzaren anteproiektuak": 20.000,00 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 20.000,00 euro

2. Kreditu gehikuntza 1 3260 22105 "Eskolako jantokiko ahokularitza". 5.795,10 euro

"Eskolako jantokiei dirulaguntza" 1 7508004 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 3.027,69 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 2.767,41 euro

3. Ezohiko kreditua 1 1722 48900 "Haritz amerikanoengatik kalteordaina": 1.100 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.100,00 euro

4. Ezohiko kreditua 1 3230 22706 "Aeroterminia ezartzeko proiektua": 7.000 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 7.000,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2025eko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. oinarriaren arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

7. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Nere Sotil	F. 852	4.719, 00 €
Koloreak	F. 1017	51,60 €

Venus Campos Walsh	F. DFA 49	2.833,41 €
IDM Medical	F. 2025	131,07
Wikai	F. 1/26518	112,10 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A17/2025	90 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,50 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,73 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	436,01 €
Codisna	F. 25.625	91,96 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	800,39 €
ADO Urban furniturea	F.3227	1.190,64 €
Goener	F. eskolako argia urria	783,41 €
Goener	F. udaletxeko argia urria	623,65 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F.75/2025	167,83 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 76/2025	361,79 €
Serlimpia	F. 250677	75,02 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1136	134,50 €
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. 25.50	792,55 €
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. C25.6	3.611,85 €
Comercial Fervis	F. 3448	88,28 €
Suministros eléctricos	F. Sorgintxoko suelo radiantea kontadorea	45,24 €
Tüv Rheinland	F. 401210961	181,50 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Angelines Carrillo Ruiz	F. A18/2025	28,90 €
Maite Garcia Satrustegui	F. Urriko menuak	1.116,65 €
Comercial Fervis	F. 3447	22,87 €
Eroski	F. kutxatik ordainduta	106,80 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. urriko janaria	50,21 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Urriko garbiketak	27,10 €
	DENETARA:	18.692,56 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

8. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziaki direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.